

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Berezeroetara iristeko, iragarkiak jartzeko asmoa dugu, bai animalien dendetan, bai albaitaritegietan, leku horietara joango baitira maskotak dituzten pertsonak. Dena den, ahal bada, iragarki desberdinak jarriko ditugu lokal ezberdinetan eta sare sozialetan ere publizitate kanpaina bat aurrera eramango dugu.

Dendetako iragarkiek hainbat maskoten argazkiak izango dituzte (animalienak gure zentroan jolasean). Argazkiak ohiko lan-egun batean aterako ditugu, gure langileekin bizi dugun errealitatea erakutsi ahal izateko. Gainera, animalia batzuei kamara bat jarriko diegu esperientzia haien ikuspuntutik grabatu ahal izateko eta honekin bideo promozional bat sortzea erbaki dugu sare sozialetan argitaratzeko. Beste alde batetik, albaitaritegietan poster batzuk jarriko ditugu, poster harrietan gurekin kolaboratuko duten profesionalen argazkiak jarriko ditugu eta beraien profesionaltasuna gorai patuko dugu. Horrela, animalien ongizateak guretzat duen garrantzia adieraziko dugu, pertzepzio on bat utziz bezeroengan.

Iragarki guztietan gurekin harremanetan jartzeko informazio guztia jarriko dugu (sare sozialak, emaila eta webgunea). Inolako konpromezurik hartu gabe jar daitezke gurekin harremanetan, eta bisita gidatu bat eskainiko diegu gure eraikuntzan zehar, bertan gure zerbitzu eta guneak erakusteko. Horrela, gertutasun eta segurtasun irudia emango diegu, horrela beraiek beren begiekin ikusiko lukete nolakoa den gure lana eta gure zerbitzuen ebaluazio bat egingo lukete.

Gure zerbitzuak erakutsi ondoren, bezeroek erabaki beharko lukete gure zerbitzuak erabili nahi dituzten edo ez eta ahal dugun guztia egiten saiatuko gara administrazio-prozesua errazteko. Maskotari buruzko oinarritzko galderen formulario bat bidaliko edo emango diegu, gainerako dokumentuekin batera.

Urte osoan zehar bezeroekin bilerak edo telefono-deiak egiteko prest egongo gara, zalantzak eta galderak izanez gero. Gainera, emandako zerbitzuari buruzko iritzia eta hobekuntzak eskatuko ditugu, ahalik eta zerbitzurik onena eskaini ahal izateko.